

HAUR HEZKUNTZA GRADUA II MODULUA ESKOLA ETA CURRICULUMA

2022/23 ikasturtea



MODULUKO IRAKASLEAK

Hezkuntzaren Psikologia: Pilar Gil (koordinatzailea)

Didaktika Orokorra: Naiara Gorroño

Garapen Psikomotorra I: Olatz Bastarrica

Desarrollo de la Expresión Musical I: Amaia Lojo eta Eli Arabaolaza


Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I: Pablo Lekue

AURKIBIDEA

	ORR.
1. SARRERA	3
2. KONPENTENTZIAK	4
2.1. Graduako konpetentziak	4
2.2. Lan modularreko konpetentziak	4
3. TALDEAREN EGITURA	5
4. LANAREN EGITURA	5
4.1. Ezaugarri orokorrak	5
4.2. Txosten idatzia	6
4.3. Ahozko aurkezpena	7
5. LANAREN KRONOGRAMA	8
6. EBALUAZIOA	9
7. ERANSKINAK	10

1.- SARRERA

Haur Hezkuntza graduako 1.mailako diziplinarteko bigarren modulua egiteko gida duzu esku artean. Bigarren honetan ere zenbait irakasgaien irakasleok ahaleginak egin ditugu, nor bere arlotik baina lan modular baten bidez, konpetentzia batzuk lortze aldera: diziplinartekotasuna curriculum arloetan, talde lana eta lan autonomoa, komunikatzeko gaitasuna ... Hau guztia xede dugula, *Didaktika Orokorra, Hezkuntzaren Psikologia, Garapen Psikomotorra I, Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I* irakasgaien irakasleok teoria eta praktika lotzen dituen lan bat egitea erabaki dugu.



Diziplinarteko modulua Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH/ODS) hauekin erlazionatzen da: 3. Osasuna eta ongizatea; 4. Kalitate oneko hezkuntza; 5. Genero berdintasuna; 10. Desberdintasunak murriztea eta 18. Hizkuntza eta Kultur aniztasuna.



2.- KOMPETENTZIAK

2.1 GRADUKO KOMPETENTZIAK

1. taula. *Graduko kompetentziak.*

Zenbakia	Kompetentzia
G001 Diziplinartekotasuna curriculum arloetan	Haur Hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak eta ebaluaketa-irizpideak ezagutzea, horien berezitasun epistemologikoa eta horien didaktikaren berriazkotasuna ulertuz, baita diziplinen arteko harremana ere, neska-mutilen lana prestatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.
G008 Haurtzaroan garapena sustatzea	Haurren dietetika eta higieneari buruzko oinarriak ezagutzea. Neska-mutikoek beren gorputza ezagutu eta kontrolatu dezatela sustatzea, autonomia-ohiturak bultzatuz. Arreta goiztiarraren oinarriak ezagutzea, eta halaber, prozesu psikologikoak, ikaskuntzakoak eta lehen haurtzaroan nortasuna eraikitzeakoak ulertzea ahalbidetzen duten oinarriak eta garapenak ezagutzea, horiek garatu daitezela sustatuz.
G011 Lan autonomoa eta talde lana	Maila honetako irakasle guztiekin jarduerak elkarlanean planifikatzea. Irakaskuntza-lana eta jarduera profesionala berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan taldean gogoeta egitea. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.
G012 Hezkuntzan esku hartzeko diseinua	Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionali eragiten dieten oinarriko kompetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza-prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diena. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.
G015 Adierazpena eta komunikazioa	Komunikazio-kompetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzekoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.

2.2. LAN MODULARREKO KOMPETENTZIAK

2. taula. *Lan modularreko kompetentziak.*

Zenbakia	Kompetentzia
E01 Behaketa	Lan modularreko irakasgaien edukiak identifikatzea, haur hezkuntzako ikastetxeko hainbat denbora tarteetan behaketaren bitartez jasotako informazioaz baliatuz.
E02 Teoria eta praktikaren arteko lotura	Lan modularreko irakasgaien arteko erlazioak eta teoria zein haur hezkuntzako errealitatearen artekoak aztertzea identifikatu dituzten edukietatik abiatuz.
E03 Pentsaera kritikoa	Haur eskolako geletan behatutakoan oinarrituz talde eztabaida sustatzea kideen parte-hartzearen bitartez.
E04 Adierazpena eta	Bildu eta jorratutako informazio esanguratsuena idatziz eta ahoz komunikatzea alde aurretik emandako irizpideak jarraituz.

3. TALDEAREN EGITURA

Ikasleok nahi bezala eratuko dituzue taldeak, beti ere segidan aipatzen ditugun baldintzak kontuan hartuta:

- ❖ Taldekideen **kopurua** 4 lagunekoa izango da. (Arrazoiak argudiatuz gero, 3 edo 5 izan daitezke.)
- ❖ Talde bakoitzean, **gutxienez, ikasle bat *Garapen Psikomotorra I* ikasgaia baliokidetu gabe** izatea. (Salbuespena: bost ikaslez osatutako taldea baldin bada, gutxienez bi ikasle izan beharko liratekeela *Garapen Psikomotorra I* ikasgaia dutenak).
- ❖ Taldeak **Otsailaren 3rako** osatuta egon beharko dira, eta aurkeztu beharreko fitxa egelan eskegita duzue.
- ❖ **Otsailaren 10era arte** izango dute taldeek aldaketak egin ahal izateko epea. Hortik aurrera taldeak egonkorrak izango dira eta hartutako konpromisoari ezingo zaio uko egin.

4. LANAREN EGITURA

4.1. EZAUGARRI OROKORRAK

Lanaren abiapuntua ikastetxe batera egingo den bisita izango da. Horretarako, **Martxoaren 13tik 17ra** arte duzue, ikasle talde bakoitza ikastetxe batera joan, eta baimena lortu ondoren, moduluko irakasgaiekin erlazionatzen diren denbora tarteak behatu eta aztertzeke.

Lan modularrean parte hartzen dituzten irakasgai guztiekin harremana dituzten alderdiak behatze aldera, bat baino gehiago izan daitezke ikastetxeetara egiten diren bisitak; betiere, kontaktua egin den maisu edo maistren oniritzia ezinbestekoa izanda bisita kopurua adosteko garaian.

Halaber, oso jakitun gara COVID-19ak ikastetxeetan sortu dituen kezka eta arazoak, ondorioz hori guztia modu osasuntsu eta seguruan antolatzeko eman dituen lanak. Hori dela eta, ikastetxeetako dinamikak gure presentziarekin gehiegi ez oztopatzea oso garrantzitsua dela uste dugu eta beraz, bi kidez osatutako bisitak burutu daitezke behaketa bakoitzean, gehienez. Ikastetxeak indarrean izan ditzaketen protokoloak (COVID-19) ezagutu eta errespetatu beharko ditugu bertako langile eta haurren osasuna arriskuan ez jartzearen.

Behaketa tarteetan, moduluko irakasgai bateko ezagutza arloarekin erlazioa izan ditzaketen alderdiak behar bezala jaso ez direla susmatuz gero, ikastetxeko maisu edo maistrei egindako elkarrizketen bitartez osatu daiteke informazio bilketa hori. Egoeraren arabera elkarrizketa hori bertaratuz edo modu telematikoan egin daiteke.

Behaketa egin ondoren, taldeek lanaren txostena prestatzen joango dira eta **Martxoaren 27tik Martxoaren 31ra** arte arlo zehatzen inguruko zalantzak argitzeko arlo

horretako irakaslearengana joan ahal izango dira (*feedback* astea). Hortik aurrera talde guztiak, irakasle bakoitzaren irizpideei jarraituz, lanaren txostena osatzen joango dira.

Taldeek txosten idatzia eta aurkezpenarako gidoi-zirriborroa **Apirilaren 21erako beranduenez** eGelara igoko dute.

Aurkezpenak **Maiatzaren 8tik Maiatzaren 11ra** izango dira (aurrez egutegi zehatz bat finkatuko da).

4.2. TXOSTEN IDATZIA

Lan idatziaren egitura orientagarria honako hau izan daiteke:

1. Azala (ikusitako ereduak).
2. Aurkibide zenbakitua.
3. Sarrera. (Ikastetxearen ezaugarri orokorrak: izena; izaera - publiko/pribatua/kontzertatua-; kokapena; testuingurua; tamaina; eredu pedagogikoa edo/eta metodologia; etapak; ...); behatutako saiok eta ikastaldearen ezaugarriak (maila, adina, kopurua, besteak beste).
4. Behatutako tarteen deskribapena. (Ikastetxean behatutako saioren deskribapena: Zer ikusi duzue ikastetxean?)
5. Behatutako tarteen analisia. (Lan modularrean parte hartzen duten irakasgaiekin ikuspegitik: Non eta nola agertzen dira moduluaren bost irakasgaien edukiak? Nola uztartzen dira? Zer ondorio ateratzen dituzue honetaz?..)
6. Lanaren balorazio orokorra (Zer ikasi duzue? Zer kostatu zaizue gehien? Nola hobetu liteke lanaren proposamena?..)
7. Bibliografia (internetekoa barne)
8. Eranskinak (argazkiak, bideo-klipak,...)

Lanak gutxienez 12 eta gehienez 15 orrialdeko luzera izango du (eranskinik gabe), Times New Roman hizki-motan, 12 neurrikoa eta 1,5 tartekoa..

Lana PDF bakar batean horretarako eGelan sortutako zereginean igo beharko da.

Eranskinak printzipioz dokumentu berean jarri beharko lirateke, dena den, eranskinak pisu gehiegi hartuko balute dokumentu bakarrean igotzeko, aparteko esteka batean partekatu beharko duzue irakasleekin DRIVE, WETRANSFER edo antzeko baliabideren baten bidez.

4.3. AHOZKOA (AURKEZPENA ETA HAUSNARKETA)

Ahozko aurkezpena maiz lan idatziaren irakurketa huts bihurtzen da. Holakorik gerta ez dadin oso kontuan hartzeko irizpide batzuk ematen ditugu segidan:

1. Guztira talde bakoitzak 45 minutuko saioa izango du bere lana aurkeztu eta horren inguruko hausnarketa konpartitua egiteko.
2. Lanaren **hasierako aurkezpenak 10 minutu** iraungo du (ez da inolaz ere denbora tarte hori baino gehiago luzatuko). Lanaren alderdi garrantzitsuenak baino ez dira azalduko eta, noski, ezingo da irakurri. Taldekide guztiok parte hartu behar dute eta interbentzio denbora berdintsua izango dute. Ikus-entzunezko baliabideek lagundu dezakete aurkezpena interesgarri eta atseginago egiten, eta horien erabilpen egokia ere baloratuko da. Halaber, hizkuntzaren aberastasuna zein zuzentasuna kontuan hartuko dira (ikus ebaluaziorako errubrika).
3. Ahozko aurkezpenak gelakideen gogoeta bultzatzea du helburu nagusia. Hori dela eta, **lanaren aurkezpena eta gero, hausnarketa bultzatu beharko da (gutxienez 25 eta gehienez 35 minutu)**. Aurkezleek eztabaidatzeko egoerak edo gaiak aukeratuko dituzte (behatutako egoerak kontuan hartuz) eta galdera desberdinak erabiliko dituzke kideen parte-hartzea eta gogoeta sustatzeko.
4. Aurkezpenak GA1 eta GA2 taldeen arabera antolatuko dira (osasun eta higiene irizpideek horretarako aukera ematen badute), eta taldekide GUZTIAK aurkezpen GUZTIETAN egon beharko dute (saioretan zerrenda pasatuko da). Entzulegoak aurkezten duen taldearen hausnarketan parte hartu beharko du, eta hori ere baloratuko du.
5. Txosten idatzia entregatzen den egunerako ahozko aurkezpena eta hausnarketaren gidoia aurkeztu beharko da, bertan azalduz, aurkezpen horren inguruko hausnarketaren abiapuntu izan daitekeen errealitatea, aurkezpen horretarako zein helburu pentsatu diren eta zein galdera prestatu diren hausnarketa bultzatzeko.

5. LANAREN KRONOGRAMA

Lan modularra egiteko irakasgaietako saioak ere erabiliko dira. Hala ere, gogoratu beharreko datak honako hauek dira:

URTARRILA 2023

23	24	25	26	27
30	31			

Urtarrilak 23: bigarren lauhilekoaren hasiera.
Urtarrilak 25: lanaren aurkezpena.

OTSAILA 2023

		1	2	3
6	7	8	9	10
13	14	15	16	17
20	21	22	23	24
27	28			

Otsailak 3: taldeak osatzeko eta taldearen fitxa eGelan eskegitzeko azken eguna.
Otsailak 10: taldeetan aldaketak egiteko epearen amaiera.
Otsailak 20-21: ez dago klaserik.

MARTXOA 2023

		1	2	3
6	7	8	9	10
13	14	15	16	17
20	21	22	23	24
27	28	29	30	31

Martxoak 13-17: ikastetxeetara joateko egunak.
Martxoak 27-31: "feed-back" astea (klasean edo/eta tutoretzan).

APIRILA 2023

3	4	5	6	7
10	11	12	13	14
17	18	19	20	21
24	25	26	27	28

Apirilak 5: ahozko aurkezpenaren inguruko azalpena.
Apirilak 6-14: ez dago klaserik.
Apirilak 21: txosten idatzia eta ahozko aurkezpenaren eskema entregatzeko azken eguna.

MAIATZA 2023

1	2	3	4	5
8	9	10	11	12

Maiatzak 1: ez dago klaserik
Maiatzak 8-11: ahozko aurkezpenak.
Maiatzak 12: bigarren lauhilekoaren bukaera.

6. EBALUAZIOA

Ebaluazioak bi atal izango ditu: txostena eta aurkezpena, eta biak ala biak gainditu behar dira. Lan honek irakasgai bakoitzaren arabera balio berdina jasoko du (Ikusi 3.taula) eta beraz irakasgai eta irakasle bakoitzaren ardura eta parte hartzea prozesu osoan zehar orekatua eta berdina izango da.



Txosten idatzia irakasle-taldeak baloratuko du. Ahozko aurkezpena zein hausnarketarako saioa 2 irakaslez osaturiko epaimahai batek baloratuko du eta ikaskideek ere parte hartuko dute ebaluazioan, ekarpen formatiboen bidez: galdera-iruzkinak eginez, zer dagoen ondo-zer hobetu adieraziz, nahiz eta ikaskideen ebaluazio honek notan eraginik ez duen izango.

3. taula. *Irakasgai bakoitzak lan modularrari esleitutako kredituak(1) eta balioa.*

	Kredituak (1)	Puntuazioa
<i>Hezkuntzaren Psikologia</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Didaktika Orokorra</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Garapen Psikomotorra I</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Arte plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu
<i>Desarrollo de la Expresión Musical I</i>	0,9 Kreditu	1,5 puntu

(1) ECTS kreditu bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ez aurrez aurrekoak dira.

7. ERANSKINAK

1.ERANSKINA: LANAREN EBALUAKETA ORRIA

Idatzizko txostena: Ebaluazio irizpideak	Ebaluatzailearen oharrak	NOTA
Nahikotasuna: Lanaren hedadura gidan emandakoa den		
Egitura: Idazlana gidan emandako egiturara hurbiltzen den		
Balioetasuna: edukia gaiari lotzen zaion		
Koherentzia: Atalez atal, kontraesanik gabe osatua dagoen		
Oreka: bost diziplinei antzeko tartea eman zaien		
Lotura: bost diziplinen arteko erlazioa		
Hizkuntza		
OROTARA		

Ahozko aurkezpena: Ebaluazio irizpideak	Ebaluatzailearen oharrak	NOTA
Aurkezpenaren formatua: <ul style="list-style-type: none"> - Diseinua - Originaltasuna - Erabilitako baliabideak 		
Aurkezpenaren edukia: <ul style="list-style-type: none"> - Gaiaren garrantzia - Informazioaren egokitasuna - Ideien koherentzia eta lotura - Bost irakasgaien arteko lotura 		
Hausnarketaren edukia: <ul style="list-style-type: none"> - Gai(ar)en garrantzia - Aurkezpenarekin lotura - Bost irakasgaien arteko lotura 		
Moderatzeko gaitasuna: <ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzea bultzatzea - Ideien arteko loturak - Sintesia eta ondorioen formulazioa 		
Komunikatzeko gaitasuna: <ul style="list-style-type: none"> - Ahotsaren bolumena - Abiadura - Gorputzezko adierazpena - Hizlarien arteko loturak 		
Hizkuntza		
OROTARA		

MODULUAREN AZKEN NOTA (idatzia + ahozkoa):

2. ERANSKINA: MODULUAREN EBALUAKETA ORRIA IKASLEENTZAT

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (ikasleei idatziz eman moduluko konpetentziak horien lorpen maila ebaluatu dezaten)
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue ...).
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute ...).
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?

3. ERANSKINA: BEHAKETARAKO GIDOIA

Lan modularrerako ikastetxe batetara bisita bat egin behar duzue. Bisita horretan behaketa lana egin behar duzue. Behaketa honen helburua errealitate hori ezagutzean datza eta ez doa bereziki atal zehatzei bideratua, azken finean ikastetxe bakoitzean errealitate oso desberdinak topatuko baititugu eta. Hemen azaltzen diren atal hauek behaketa hori egin ahal izateko dira baina jakin ezazue ez direla zertan zehatz-mehatz atal guztiak bete behar eta zuek beste batzuk erantsi nahi badituzue ongi etorriak izango direla.

3.1. SAIO ARRUNTAREN BEHAKETA

- 1) Zer nolako **eduki edo ezagutza curricular** ikasten al dira? (kontzeptuak, estrategiak, trebetasunak, jarrerak, baloreak ...)
- 2) **Gela/espazioa** nolakoa den? Nola antolatzen al da? (txokoak, tailerrak, interes guneak,...)
- 3) **Denbora** nola antolatzen al da? (egituratua, itxia/irekia, malgua ... nolakoa den?)
- 4) Zer nolako **jarduerak** egiten al dira? Jarduerak nola egiten dira? (bakarka, talde txikian edo handian, txokoetan, zirkulazio askea, eta abar)
- 5) Zer egiten du **irakasleak**? Zein da irakaslearen rola? (erantzunen zuzentzailea, estrategia, erronka kognitiboak, azalpen esanguratsuak edo esperimenterazioen bidezko gidaria ...)
- 6) Zer egiten duten **ikasleak**? Zein da ikaslearen rola? (hartailea, informazioa prozesatzailea, eraikitzailea ...)
- 7) Nolako **elkarrekintza** sortzen al da irakasle-ikasleen artean? Eta ikaskideen artean? (imitazio ereduak, informazio trukaketa, indibidualista, lehiakorra, lankidetzak ...)
- 8) Zer nolako **baliabideak** erabiltzen al dira (fitxak, liburuak, material digitalak, arbela digitala, eta abar)
- 9) Jarduerak **ebaluatzen edo kalifikatzen** al dira? Zer nolako **irizpideak/adierazleak** erabiltzen al dira? Zer nolako **instrumentuak/teknikak** erabiltzen dira ebaluazio edo kalifikaziorako? (erregistro fitxak, erregistro anekdotikoak, errubrikak, behaketa ...)

Ondorioz, adierazi duzuen aurreko guztia aintzat harturik, galdera hauei erantzun:

HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA irakasgaiaren arabera:

- 1) Irakasleak zer nolako **IKASKUNTZA/IRAKASKUNTZA EREDUA EDO IKUSPEGIA** erabili du nagusiki? (konduktista, kognitibista, informazio prozesatzearena ala konstruktibista ...)
- 2) Irakasleak zer nolako **TEKNIKA, ESTRATEGIA EDO METODO PSIKOLOGIKOAK** erabili ditu nagusiki? (portaera aldatzeko teknikak, informazioa prozesatzeko teknikak, metodo deduktiboa ala inductiboa, kideen arteko ikaskuntza, eta abar)

DIDAKTIKA OROKORRA irakasgaiaren arabera:

- 1) Zer nolako **CURRICULUM MOTA** bideratzen du irakasleak? (irekia, itxia, ezkutua, bisuala, formala, erreala/operazionala, nulua, kanpokoa ...)
- 2) Zein **METODOLOGIA MOTA** jarraitzen al da? Nolakoak dira egiten diren **JARDUERAK**? (irekiak, itxiak, alde zurretik antolatutakoak, ...)

- 3) Zein EBALUAZIO MOTA egiten al da? (normatiboa, kriteriala, kuantitatiboa/kualitatiboa, hasierakoa/bitartekoa/bukaerakoa, diagnostikoa, bildumazkoa edo sumatiboa, jarraitua, hezitzailea edo formatiboa...)

3.2. PSIKOMOTRIZITATEKO SAIOAREN BEHAKETA

- 1) **Gelaren antolakuntza. Espazioa, materiala**
- 2) **Sarrerako errituala:** nola jasotzen dituen haurrak irakasleak, ekintza berezirik egiten ote duen
- 3) **Irakaslearen rola** nolakoa den: zenbateraino esku-hartzen duen ikasleekin, non kokatzen den, zein komunikazio mota erabiltzen den ...
- 4) **Haurren jokabidea:** zein jarduera egiten dituzten nagusiki, nola erlazionatzen dira beraien artean
- 5) **Materialaren erabilera:** ikusirik zer dagoen nola kudeatzen da erabilera hori
- 6) **Hausnarketa:** ikusitakoak sortutako hausnarketa adierazi. Propio Psikomotrizitateari dagokiona.

3.3. ARTE HEZKUNTZAKO SAIOAREN BEHAKETA

- 1) Nolakoa da **Arte Hezkuntzarako espazioa?**
 - Arte Hezkuntzarako ikasgelaren deskribapen sintetikoa. Haurrek Plastikako jarduerak burutzeko berriazko espazioa erabiltzen duten. Bertako altzariak eta haien kokapena, leihoak, gelako argia (naturala edo artifiziala)...
 - Arte Hezkuntzarako ikasgelako irudien deskribapena. Nolako irudi dauden: Zer irudikatzen eta zertarako irudikatzen da? / Non egiten dira irudikapenak? (orriak, kartelak, kartulinak ...) / Nork egindako irudiak dira? / Nori zuzendutako irudiak dira?
 - Ikasgelan ikusizko ingurune aberatsa dago: gela egokia, haurren lanak bistan daude (marrakizkiak, margoak, hiru dimentsioko egiturak), ikusizko beste adibide batzuk ageri dira (artelanak, Interneteko eta inprimatutako irudiak...)
- 2) **Zer nolako jarduera egiten dira?**
 - Ez dituzte edo gutxitan burutzen dituzte Arte Hezkuntzako jarduerak, eta gehienetan eskulanetara bideratzen dira.
 - Arte Hezkuntzarako jardueren maiztasuna: zenbat ordu asteko.
 - Zailtasun maila desberdineko lanak burutzen dituzte.
 - Ikasleek Arte Hezkuntzarako jarduera anitz eta konplexuak egiten dituzte askotariko baliabide eta erreferentziazko adibideak uztartuz.
 - Egindako lanak haurrek, ahoz zein idatziz, deskribatu, azaldu, kontatu edota interpretatzen dituzte.
- 3) **Zer nolako material daude?**
 - Ikasgelan Arte Hezkuntzarako askotariko baliabideak daude.

- Marraztu eta margotzeko materialak (margoak, arkatzak, errotuladoreak, ikatz-ziriak, paperak, kartoiak...)
- *Collage*-ak burutzeko materialak: kartoiak eta kartoi meheak, aldizkariak, kola, guraizeak...
- Estanpazioak egiteko materialak: margo likidoak, paperak, pintzelak...
- Grabatzeko tresnak: argazki kamerak, proiektoreak, ordenagailuak
- Hiru dimentsioko egiturak eta formak egiteko materialak: buztina, plastilina, egurra, kartoiak, jostailu txikiak, naturako materialak...
- Euskal Herriko eta kanpoko egileen lanen erreproduzioak daude. Ikasleek burututako ikusizko produkzioak bistan daude. Ikasgelan askotariko argitalpenak daude : artisauen eta artisten lanak, testuliburuak, material didaktikoak...

4) **Materialak nola erabiltzen dira?** Eskuragarri daude haurrentzat materialak eta erabilpen motore fineko beste materialak? Erabiltzen al dituzte arteko liburuak erreproduzioak, irakasleak erabiltzen dituzte teknologi berriak?

- Arte Hezkuntzarako materialak gutxi daude eta ez daude haurrentzako eskuragarri.
- Haurrentzako eskuragarri daude plastikarako materiala batzuk, eta haurrek erabiltzen dituzte.
- Arte Plastiketarako material asko eta ondo antolatuta dago (ondo sailkatuta eta banatuta daude).
- Material ugariak eta anitzak daude : teknologia berriak, buztina, plastilina, argazkiak, pinturak, argazkiak, puzzleak ...

3.4. MUSIKA SAIOAREN BEHAKETA

- 1) **Recursos humanos:** ¿Cuántos profesores/as de Educación Infantil hay? ¿Cuenta el centro con algún profesor o profesora especialista en educación musical? ¿El profesor o la profesora del grupo (tutor/a) trabaja la música en el aula? En caso afirmativo: ¿qué aspectos musicales trabaja?, ¿cómo lo hace? P. ej.: marchando o moviéndose al ritmo de la música, dramatizando movimientos, cantando...
- 2) **Recursos espaciales:** ¿El centro dispone de alguna sala especial para realizar actividades musicales o de movimiento?
- 3) **Recursos materiales:**
 - ¿Hay materiales de música accesibles a l@s niñ@s? P. ej.: aula de música con instrumentos, equipo de música, reproductor de vídeo...
 - ¿Qué tipo de música se utiliza habitualmente? P. ej.: canciones infantiles en euskera/castellano, música clásica y popular, canciones en otros idiomas, rimas...
 - ¿Qué tipo de instrumentos musicales tienen? P. ej.: instrumentos de pequeña percusión (Instrumentarium Orff), juguetes musicales, instrumentos de juguete, instrumentos contruidos por ell@s mism@s...
- 4) **Actividades musicales:**
 - ¿Qué tipo de actividades musicales se llevan a cabo y con qué frecuencia? P. ej.: actividades de baile o movimiento, dramatización de canciones, rimas... ¿Construyen instrumentos musicales propios? ¿Cómo responden l@s niñ@s a estas actividades?
 - Las actividades musicales que se realizan fomentan la creatividad de l@s más pequeñ@s? P. ej.: se favorece el movimiento libre e individual, se les pide que inventen palabras para las canciones...
 - ¿Se realiza a lo largo del año alguna actividad musical especial? P. ej.: se invita a alguien para que venga a tocar un instrumento, participan en festivales de Navidad o fin de curso...
- 5) **Otros:**
 - ¿Qué presencia tiene la música en el día a día de l@s más pequeñ@s? (P. ej.: cantan con l@s niñ@s, ponen música suave a la hora de la siesta, utilizan música de fondo...)
 - ¿Qué nivel de ruido hay en el aula? ¿La conversación en tonos normales se hace difícil? ¿La música de fondo aumenta el volumen de ruido?
 - Durante vuestra visita: ¿habéis observado la existencia de alguna necesidad? ¿Creéis que se podría mejorar algo? ¿Qué? ¿Cómo?